Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Zeberio Agirre

Ataun, Gipuzkoa (1938)



Aurkibidea

Biografia



Olatzaundi baserrian jaio zen 1938. urtean. Gurasoak ere Ataungo Aiakoak zituen.

Zintak

ATA-025

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Data**: 2011-08-26
- **Iraupena**: 65 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Nesken interesak fabriken etorrerarekin aldatu

- **Erref**: ATA-025/002
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:04:32. **Bukatu**: 00:06:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Lehen inguruko jendearen artean ezkontzen ziren. Fabrikak iritsi zirenean, bizi-kalitatea hobetu egin zen. Emakumeak, aldaketa hura etorri zenean, kaleko mutilak bilatzen hasi ziren; eta, orduan, baserriko mutilek arazoak izan zituzten andregaia topatzeko.

2. "El que tiene Vespa tiene neska"

- **Erref**: ATA-025/004
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:06:51. **Bukatu**: 00:08:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Herria, azpiegitura » Garraioak

Laburpena:
Lehen, hasiera batean, bizikletan hasi ziren ibiltzen. Gerora, motorra etorri zen; eta neskak oso gustura joaten ziren Vespa zeukan mutilarekin. "El que tiene Vespa tiene neska".

3. Neska-laguntzako komeriak

- **Erref**: ATA-025/005
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:08:28. **Bukatu**: 00:10:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Garai batean, neska-laguntzen aritzen ziren. Horrelako batean izandako komeriak kontatzen ditu.

4. Neska lagundu osteko afaria

- **Erref**: ATA-025/007
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:10:59. **Bukatu**: 00:12:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Neska-laguntzen aritu eta gero, mutilek afaldu egiten zuten: batzuetan, beraien etxean; besteetan, neskarenean.

5. Emaztea ondo aukeratu izanaren zortea

- **Erref**: ATA-025/009
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:13:43. **Bukatu**: 00:15:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Nobio garaiez hitz egiten du: neska zaindu egin behar da; ondo begiratu behar da norekin elkartzen den. Juergazalea izatea eta neskekin arrakasta izatea zaila zen lehen. Juan ondo moldatu zen lagunekin ibili eta andregaia izateko; emaztearekin zorte handia izan du.

6. Neska-laguntza ukatzeko arrazoiak

- **Erref**: ATA-025/010
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:15:51. **Bukatu**: 00:17:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Neskek neska-laguntza ukatzeko ematen zituzten arrazoiak aipatzen ditu. Garai hartan, egon ziren Juan neskarengandik bereizi nahi izan zutenak, baina ez zuten lortu.

7. Neskek ere bazekiten begiratzen

- **Erref**: ATA-025/011
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:17:40. **Bukatu**: 00:19:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Andregaiak, Juanekin hasi baino lehenagotik ere, begia bota zion Juani. Mutilek ez ezik, neskek ere begiratzen zuten zein mutil gustatzen zitzaien.

8. Emakumeen bizimodua lehen eta orain

- **Erref**: ATA-025/013
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:22:00. **Bukatu**: 00:23:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
Gaur egungo egoerari buruzko iritzia ematen du. Gaur egun, emakumeek lan egiten dute; baina lehen etxean geratzen ziren familia eta etxea zaintzen.

9. Artzainen ohiturak neguan

- **Erref**: ATA-025/018
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:33:23. **Bukatu**: 00:34:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Lehen, artzainaren lana neguan nolakoa izaten zen azaltzen du: artzainak behera joaten ziren negua pasatzera, batzuk Bizkaira ere bai.

10. Gazta egiteko prozesua lehen

- **Erref**: ATA-025/024
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:43:43. **Bukatu**: 00:44:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Lehen gazta gutxi batzuk egiten zituen; prozesua nolakoa izaten zen azaltzen du.

11. Osabaren txabola berritzen

- **Erref**: ATA-025/026
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:45:15. **Bukatu**: 00:47:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Beraien osabak txabola zeukan. Txabola hori, baina, berritu egin behar zen, eta Juan arduratu zen horretaz. Oso gustura geratu zen emaitzarekin.

12. Norbere bakearen balioa

- **Erref**: ATA-025/029
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:52:00. **Bukatu**: 00:53:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Bere bakean dagoen pertsonak besteei errespetua sartzen die. Ez biziegia, ez tontoegia, tartean dago neurria. Bakea da giltza.

13. Balioa barruan dago

- **Erref**: ATA-025/031
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:54:50. **Bukatu**: 00:55:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Artzainen ospeari buruz hitz egiten du. Norbera ona bada, ez du zertan bere burua famatu eta ondokoa beheratu. Hortik eztabaida dator.

14. "Zenbat ardi dituzu?"

- **Erref**: ATA-025/032
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:55:55. **Bukatu**: 00:58:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Artzainek ez dute esaten zenbat ardi dauzkaten zehatz-mehatz. Normalean, dauzkan ardiak baino gutxiago dituela esaten du artzainak. Hori aspalditik datorren ohitura da, inork esan behar izan gabe ikasitakoa.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-30

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com